

Osakidetzako aldi baterako kontratazio-zerrenden webgunearen bidez, bitartekotasunen eskaintza egingo da, **lan egiteko prest** dauden **2021eko kontratazio-zerrenda luzeetan** dauden pertsonen zuzenduta, kategoria honetan:

- **Erizaina**

Prozedura horrek Erabaki honi jarraitzen dio: 2021eko uztailaren 21eko Erabakia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetzan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeko dena (Osakidetzaren webgunean argitaratutako Erabakia, aldi baterako kontratazioari dagokion atalean: [Aldi baterako kontratazioa - Profesionalak - Osakidetza \(euskadi.eus\)](#))

Eskaintako izendapenak

Zein izendapen eskaini den jakiteko eta eskatu ahal izateko, Osakidetzako **aldi baterako kontratazio-zerrenden webgunera** jo beharko da:

https://hh-sp.osakidetza.eus/B96/home_usuario.xhtml

"Eskaintza telematikoak" atalean argitaratutako iraupen luzeko izendapenak eskaintzen dira. Irakurri posta elektronikoko honi erantsitako jarraibideak bertara sartu ahal izateko. Kontuan izan jarraibideak Osakidetzaren webgunean ere badaudela argitaratuta, aldi baterako kontratazioari dagokion atalean:

<https://www.osakidetza.euskadi.eus/aldi-baterako-kontratazioa/webosk00-procon/eu/>

"Eskaintza telematikoari buruzko jarraibideak (web)".

Prozesu honi buruzko informazio guztia webgune honetan bertan argitaratuko da.

Iraupen luzekotzat hartuko dira sei hilabete edo gehiago iraungo duten izendapenak, aurreikusitakoaren arabera.

Nori eskainiko zaion

Izendapen luzeen kontratazioko zerrendan dauden eta lanerako prest dauden pertsona guztiek nahi dituzten izendapenak aukeratu ahal izango dituzte, eta hautaketa horretan eskaintako lanpostuak zein lehentasun-ordenaren arabera aukeratu dituzten adierazi beharko dute. Aipatu beharra dago, eskaintza hau 2021eko behin betiko kontratazio-zerrendak argitaratu ondoren egiten den lehenengoa izanik, berez, **zerrendako pertsona guztiak daudela lanerako prest.**

Destino-aukeraketa

- Hautagai gisa izena emanda dauden zerbitzu-erakundeetan **bakarrik** aukeratu ahal izango dituzte destinoak.

- **Bete nahi dituzten destinoak soilik aukeratu behar dituzte (ezin izango diote uko egin esleitutako destinoari). Hautagaiek ez dituzte nahitaez aukeratu behar izena emanda dauden zerbitzu-erakundeko edo zerbitzu-erakundeetako destino guztiak, ofiziozko esleipena egiten zaien zein ez (aurrerago azaltzen da hori).**

Gaitasuna betetzen duten destinoak SOILIK aukeratzea: dagokien Prebentzioko Oinarrizko Unitateak emandako ziurtagiria indarrean duten pertsonak, non jasoko baita **gai direla, oharrak eginda**, gaitasuna duten destinoak baino ez dituzte aukeratu beharko.

Epea

Eskaera Osakidetzaaren webgunearen bidez egin ahal izango **2023ko azaroaren 7ko 08:00etatik 2023ko azaroaren 13ko 14:00etara**.

Egun eta ordu horretatik aurrera ezin izando da eskaerarik egin.

DESTINOA ESLEITZEA

A. Hasierako esleipena

Eskaintza eskainitako plazak baino pertsona gehiagori bidaltzen zaienez (lanerako prest dauden pertsona guztiak), destinoak aukeratzeak **ez** du esan nahi horietako bat esleituko zaionik.

Izendapenak automatikoki esleituko dira zerrenda luzeen puntuazio-ordenaren arabera. Ez zaie zigorrik ezarriko, zerrendan lanerako prest egonik, deitutako lanpostua betetzeko eskabiderik aurkezten ez dutenei, ondoren azaltzen den ofiziozko esleipenari kalterik egin gabe.

B. Ofiziozko esleipena

Izangaiek hautatu ez dituzten edo inori esleitu ez zaizkion izendapen-eskaintzak **ofizioz esleituko dira**, hauek kontuan izanda: zerrendako kideak hautatutako zerbitzu-erakundea, lanpostuen argitalpen-ordena, zerrendan duen lehentasun-ordena eta iraupen luzeko aldi baterako izendapenak hartzeko prest dagoen. Izangai batek ofiziozko esleipenari uko egiten badio eta ez badu justifikatzeko arrazoirik alegatzen, **2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren 41.** artikuluan xedatutakoaren arabera dagokion zigorra ezarriko zaio.

Ofiziozko esleipenean, lehenengo eskaintzatik hasiko da, izendapenak argitaratu ziren hurrenkeraren arabera; beraz, hutsik geratu den lehen izendapena ofizioz esleituko zaio Zerbitzu Erakundeko izendapen luzeen zerrendako lehenengo izangaiari. Zerrenda hori agortuko balitz, barrutiko izendapen luzeen zerrendan lanerako prest dagoen lehen pertsonari esleituko litzaioke, eta horrela hurrenez hurren, izendapen guztiak esleitu arte.

Izangaiei posta elektronikoz jakinaraziko zaie esleitutako destinoa eta dagokien zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritza haiekin jarriko da harremanetan lanean hasteko eguna ezartzeko.

Esleitutako lanpostua ez onartzearen ondorioak

Esleitutako lanpostuei ezin izango zaie uko egin, eta, beraz, esleitutako izendapen bat onartzen ez bada, kontratazio-zerrenda luzeetatik kanpo geratuko da 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren 41. artikuluan ezarritako epeetan.

Lehen eskaintza horren ondoren izendapenik jasotzen ez duten pertsonen egoera

2021eko uztailaren 21eko Erabakian ezarritakoaren arabera, behin betiko kontratazio-zerrenda luzeak argitaratu ondoren, zerrenda horietako kide guztiak behin bakarrik agertuko dira eskaintzak jasotzeko prest. Beraz, lehen eskaintza horren ondoren izendapenik jasotzen ez duten pertsoneri, dela hautaketarik egin ez dutelako, dela ezer esleitu ez zaielako, **ofizioz jarriko zaie aurreko zerrendetan zeuden egoera berean**, honako egoera hauetakoren batean badaude:

- Aurreko kontratazio-zerrendetako lanpostu huts/bitartekotasuneko izendapen bat indarrean izatea Osakidetzan. Kasu horretan, zerrenda luzeetan justifikatuta geratuko da izendapena amaitu arte.
- Osakidetzan aurreko kontratazio-zerrenden bidez emandako errelebo-kontratu bat indarrean dutenak. Kasu horretan, zerrenda luzeetan justifikatuta geratuko da kontratua amaitu arte.
- Aurreko kontratazio-zerrendetan justifikatuta egotea, beste administrazio publiko batean aldi baterako zerbitzuak ematen ari delako. Justifikazio-arrazoi hori indarrean dauden zerrendetara eramango da, berraktibatzea eskatu arte.

Egoera horietakoren batean ez badago, lanerako prest egongo da zerrenda luzeen etorkizuneko eskaintzetarako.